



Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 14. zbkia. 1995eko uztaia. 100 pzta.



Elkarriketa

**Frank Delgado,
Kubako egoera
ironiaz abesten**



Moilako ingeniariekin hizketan

Kirolak

**Luis Mari
Goikoetxearekin
elkarriketa**

Festak

**San Pedro
euritsuak
argazkitan**




(Javier Carballo utzitako argazkia)

Argazki honek ere urte gutxi batzuk izango ditu. Zer? Oraindik ez dezuela ze leku den ezagutu? Arrukalea da, Odieta frontoiaren atzekaldea, Foronda aldetik begiratuta. Orain estalita dagoen erreka stoa ere hor ageri da, behean ezkerraldean.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAI
86 08-09/86 08 10

Zumaia Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



BALEIKE

. HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

lan taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Itziar Manzisidor

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,

Miriam Romatet,

Aitor Leiza, Izar Martin,

Imanol Manterola, Ander

Hormazuri, Jon Manzisidor

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 650 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Gutunak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Barrako lanak. Batzar Nagusien eraketa.....	6
San Pedroak argazkitan:	8
Elkarrizketa: Frank Delgado.....	10
Inkesta fotografikoa..Nudismoa.....	13
Erreportaia: Moilako "teknikoak"	14
Komikia: Mattin.....	16
Sexualitatea: Besarka nazazu berriz ere.....	18
Olarru zopa	19
Antimilitarismoa: Gurutze Gorrira ez doaz	20
Izerdi patsetan: Luis Mari Goikoetxea.....	22
Lehiaketak: Komiki eta argazki lehiaketak.....	25
Kultur Agenda:.....	26
Musika: ZURE HILTZAILE	28
Denborapasak.....	30
Merkatu txikia.....	31
Lehiaketa	32

H itzaurrea

Oraindik ez da San Simon, ezta San Juda, eta uda heldu da. Joan zaizkigu San Juanak, baita azken egunetan behintzat San Telmoak ziruditen San Pedroak ere. Hura izan zen hura trumoi eta zaparrada festa! Ale honetan Kubara joan gabe "mojito" batez lagunduta irakurtzeko moduko elkarrizketa bat prestatu dizuegu. Udan oporrik hartzen ez duen ingeniari-tza eskola baten berri ere eman nahi genizueke, moila bertatik. Gurutze Gorrira denak ere beren borondatez ez direla joaten jakin degu eta beste gorri batzuk, arraunlariak, kezkati xamar daudela ere bai. San Pedroetarako kukua isildu egiten omen da. Guk, oraingoan erdiko orrialdeetatik eta bestela ere bai aurrerantzean KU-KU egiten jarraitu nahi genuke, gure irakurleek urte guztian diru faltarik izan ez dezaten. KU-KU!

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

aeK eguna 95

Dagoeneko askok jakingo duzuen moduan, euskara arrazoi nagusitzat hartuz Euskal Herrian egin ohi den bilerarik handienetarikoa bat burutuko da Zumaian urriaren 22an: AEK EGUNA 1995.

AEK eguna, AEK-n gabiltzanonek bilgune izateaz gain, euskaltzale guztion bilgune da, beraz, euskararen aldeko aldarrikapen egun bat dela esan daiteke.


Erronka hau geure gain hartuz, urte haseran 10 laguneko batzorde bat osatu eta lanean hasi ginen AEK eguna karakterizatu asmoz. Ekitaldiak zehazterakoan, ostiral eta larunbateko ekintzak (urriak 20 eta 21) Zumaiako herriari zuzenduta antolatu ditugu, igandeko egitaraua, aldiz, Euskal Herri osoari begira.

saia gaitezen egun hau euskaltzale guztion eguna bilakatzen

Ez gara nolako ekitaldiak antolatu ditugun esaten luzatuko denetarik izango baita: herri afaria, musika, antzerkia, kirolak, artisau feria ...

Beraz, dagoeneko egitaraua nahikoa lotuta dugunez, orain eman behar dugun pausoa guzti hau aurrera eramanez ahal izateko lanak banatzea

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu nahi genituzke.

Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edo eta Joxe Manuelen kabinan.

izango da, honako lantaldeak egongo direlarik: trafikoa eta aparkalekuak, propaganda, bazkaria, muntaia taldea, ekitaldien arduradunak, azpiegitura arduradunak, diruzantza ...

Gauzak horrela, deialdi zabala egiten diogu Zumaiako herriari. Ideiak eta koloreak alde batera utziz, saia gaitezen AEK egun hau AEK-n gabiltzanonek eguna izateaz gain euskaltzale guztion eguna bilakatzen eta adieraz dezagun zumaiarrok euskararen alde lan egiteko prest gaudela.

Parte hartzeko prest bazaude pasa zaitez TXOMIN AGIRRE AEK euskaltegitik, Erribera kaleko lehenengoan gaude. Dena den, laster, bilera ireki baterako deialdia ere egingo dugu. Adi egon!

Hurrengorarte.

ZUMAIAKO AEK

Okerrak zuzenduz

Kanpoederrek: urrutiko intxaurrak dozenak hamalau.

Baserriko txakurrak: hurreratu eta lau.

Ez bat, ez bestea.

Bakoitzari berea.

ERRETTOLANEKO IMANOL

ZORIONAK!



Cartagena 1995 Eko.6.24.

Kaixo lagunak! Zer moduz daude? Ni ondo nago.

Errezibitu det Baleike Aldizkaria, asko plazer nago, zorionak zuri lehenengo urteko. Aurrera eman gogor.

Askok kostatu euskarari idatzi, baina, idatz ditzagun hitzak argi, irakurleek uker diezazkiguten.

Besarkada bat nere kuadrilla (Laguntalde) eta, Goraintziak eman dana Lagunak.

PATXI ZUBIAURRE

LANDARE LOREDENDA

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 862472 ZUMAIA

ITZURUN KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA



Amertze

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

OIKIAKO KONTUAK



**UNAI
GIJARRO**

Oikia aldeko kontu batzuekin horra zuri berriketa guk hor ditugun mugimenduei jarri mesedez arreta izana degu Mountain Bike ta sagardoan lehiaketa erakutsiaz auzo honetan badala antolaketa

Antzerkia're izan genuen ez zan izan frakaso lehengo gauzak gogoratzeko ederra soluzioa histori eta bertso artean hori da hori funtzioa erakutsiaz Oikia ez dala lotan dagoen auzoa

SAKRISTAU ENTERATZEN BADA, AKABO!

Txiki-txikitatik izan dudan kuriositate "kurioso" bat asetzeko aukera -aitzakia akaso- aparta eskeini dit Baleiekek. Azkenean obsesio bihurtu zen "inkognita" hura kasik ahaztuta nuen, baina zerbait desaktibatu zen nire memoria kaxkarrean lerro hauen gaia erabat "librea" zela komentatu zidatenean: "Orain jakin ahal izango duzu, berandu bada ere, non dauden, non egon diren ezkutatuta, azken urte hauetan". Eta halaxe hasi nintzen nire misio berriaren estrategia kalkulatzeko, parrokiaren plano konplikatuak lortu eta sakristauaren ordutegi aldakorra aztertu ondoren. Egia esan, momenturik zailena aukeratzea ez zen zaila izan, jakin banekielako sakristauak ez lukeela Justanien Tourreko etapa bat bera ere galduko, ezta ordu berean Aita Saindua bisitatzera etorriko balitzaio ere; planoen asuntoa, aldiz, uste baino konplikatuagoa iruditzen zitzaidan, kanpandorrera zeraman bide bakar bat besterik ez nuelako ezagutzen, amaren baimenik gabe garai hartan -orain ez dakit gauzak aldatu diren- gizonezkoentzat soilik erreserbatuta zegoen "koro"ra igotzeko erabiltzen genuen tunel antzeko pasadizo ilun eta misteriotsu hura, hain zuzen ere. Ez nuen, beraz, aukera askorik, eta egun klabea iritsi zenean, linterna eskuan nuela "karakola"tik gora abiatu nintzen, bueltaka eta bueltaka, oraindik ere ustel usaina duten egurrezko eskaileretako zuloren batean hanka sar ez nezan alferrikako ahaleginak eginez. Sekula santan ez nintzela iritsiko ere pentsatu izan nuen behin baino gehiagotan, batez ere arnasa estutzen zitzaidan bakoitzean, baina beranduegi zen atzera egiteko. Egia deskubritu behar nuen, eta, gainera, sakristauaren sekretua gero eta hurbilago sentitzen hasi nintzen karakolaren erdiko tarte txikitik goi partean argi puntu bat antzeman nuenetik. Orduan azeleratu nuen pausoa, gero eta fuertago entzuten ziren kanpai hotsek animaturik. eta bat-batean, espero ez nuenean, eskubiko eskua barandilan arrastaka eta begirada etengabe mugitzen ziren zapatila puntetan nituela, beste errebutela amaigabe bat hartzen nindoala, ezustean harrapatu ninduten. Tamaina eta kolore guztietakoak zeuden; gehienak plastikozkoak, baina larruzko bakarren bat ere bai. Denak, hori bai, borobilak ... Eta futbol partidua galtzen zutenek kontrako ekipoari Sorazunian erosi behar izaten zioten gaseosaz akordatu nintzen, bat-batean, sakristauak lapurtu zizkigun dozenaka baloiak aurrez aurre ikusi nituenean. Bai, badakit sakristiko kristalak puskatzen genituela sarritan, baina jolin ... hobe hori elizpian haur bat bera ere jolasean ez ikustea baino. Baina mesedez, fabore bat besterik ez: ahaleginak egin Baleieko zenbaki honen alerik sakristauaren eskuetan erori ez dadin. Porsiakaso ...!



**EGUZKI
AGIRREZABALAGA**



**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

BARRAKO OBRAK KONTROLATZEKO NEURRIAK

Ekainean boletinean argitaratu ziren barrako obren Ingurugiroaren Gaineko Eraginaren Azterketaren emaitzak. Bertan hartu behar diren neurri zuzentzaileak zein diren eta zainketa lanak nolakoak izango diren zehazten da. Zumaia Bizirik taldea gustora agertu da, neurri batean.

Azterketa honen arabera makinak non egongo diren, ibilgailuak nondik joango diren zehaztu beharko da eta debekatu egiten da hondakinak baimendutako tokietatik kanpo botatzea. Erabilitako olio eta alkitranak botatzea ere debekatua dago eta eskubialdeko muturrera joateko eraikitako pista deuseztu eta ingurune hura lehen bezela utzi beharko da.

Bestalde, ingurugiroa zaintzeko programa bat ezartzen da; honen arabera eraiketa garaian isurketetako materialen eta uraren kalitate-kontrolak ikusiko dira eta

funtzionamendu fasean ere uren kalitatea, padura eta dunen prozesu geomorfologikoak eta neurri zuzentzaileak zainduko dira.

Zumaia Bizirik taldea orokorrean gustora agertu da, beraiek eskatutako punturik garrantzitsuenak biltzen dituelako deklarazio honek. Hala ere, agintarien axolagabekeria ikusita azterketa hau erakunde sozialek eskatu behar izatea salatzen dute. Obren jarraipen zorrotza egiteko konpromezua ere hartzen dute, adibidez dragaketa-lanak ere neurri egokiak hartu gabe egiten ari ote diren susmo sendoak baitituzte. ■



Ibaiko hondarrak jaso ondoren Santio hondartza asko luzatu da..

BATZAR NAGUSIEN ERAKETA ZUMAIAN



Hil honen 2an eratu ziren Batzar Nagusiak Zumaiako Udaletxean eta bertan Roman Sudupe PNV-EAJ-ko azkoitiarra aukeratu zuten Gipuzkoako Aldun edo Diputatu Nagusi. PNV, EA eta PSE-EE-ren aldeko botoak jaso zituen hautagai honek, Eusko Jaurlaritzatik beste erakundeetara zabaldu den tripartitoarenak hain zuzen ere.

PP eta IU-k boto zuria eman zuten eta HB-k botoa eman baino lehen alde egin zuen udaletxetik Batzar Nagusien demokrazia eza salatuz.

Kanpoan HB-ko ordezkariak eta zenbait herritarrek pankarta bat erakutsi zuten, "PNV eta EA-k GAL-ekin gobernatzen dute" zioena. Ertzaintza aritu zen ekitaldi hau zaintzen, baina ez zen inolako istilurik izan. ■

Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea

20750 ZUMAIA

Telefonoa: 860201

JOSEBA OSA - ITZULPENAK -

EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELESA-
FRANTSESA

tel / fax: 148065

BESTE BI MOTORA HONDORA JOAN ZIREN



Ez, da duela bi hilabeteko kontua. Oraingoan beste bi motora izan dira hondoratu direnak, "Izustarri" eta "Oskarbi" hain zuzen ere. Ekainaren 28an gertatu zen, eta beste bi motora ere arriskuan egon omen ziren askatu zituzten bitartean. Bonba txiki baten laguntzaz ur haundienak atera eta gero baldeekin aritu ziren, moilan bildu zen jendearen begiradapean. Ez dakigu nola edo zergatik joan ziren hondora, baina motorrean behintzat kalte larriak izango zituztela bai, zalantzarik gabe.

EZ AL DUTE PANEL HAU KENDU BEHAR ?

Behin baino gehiagotan ikusiko zenuten panel hau, Itzurungo hondartzarako bidean. Irakurle batek ohartarazi digu nola aspaldi kendu behar luketen; urtebete bada lanak bukatu zirela eta egunen batean behean duen zaborrarekin batera eraman beharko dute. Beste kontu bat, gainera. Kolore hori (gualda) eta gorriak alde batera utzita, gaztelera hutsez idatzia dagoela ikus dezakegu. Hau al da biztanleen %80a euskalduna duen eskualde baterako panelik egokiena?



SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK


Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081

20740 IRAETA - ZESTOA



NIKOL-ENEA


taberna

Amaiako plaza

Tfnoa. 861440



Ostegunean postre
lehiaketan juxtu-juxtu
eman zigun argazkia
ateratzeko denbora.
Ostiralean haur eta
gaztetxoek izan zuten non
gozatu, beheko plazan.
Gauean txistulariak atera
ziren, ordea, eta ez dakigu
zergatik, baina izugarritzko
euri zaparradak bota
zituen. Hainbeste
desafinatzen al zuen
bikote horrek?



**BASUSTA
ERRETEGIA**

M^a Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

**ZALLA
TABERNA
ERRETEGIA**

Plater konbinatuak - Otartekoak
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 Tel: 862387
ZUMAIA

Galdona




Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330

20750
ZUMAIA
(Gipuzkoa)



Bi bixitari
atzeritar gure
artean: Bob Marley
berbera eta bestea
oraindik
ezagunagoa: Bartolo.
Iruñearrek giroa jarri
bai, baina itxura denez
ez zuten hain ondo
jotzen, ez zuen egun
guztian atertu eta.
Gauetan jendeak ez
zuen argazkietarako
gogorik eta igandean
goizean dantzariekin
eguraldi ona hasieran,
gero ez hainbeste.
Noren errua ote?



ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

◊ **ARGIA** ◊



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

FRANK DELGADO, TROBAREN ITSASOAN MURGILDUTAKO NAUFRAGOA

Azkenean ekainaren 20an etorri zen gure herrira eta Oxforden emanaldi bero eta eder bat eskeini zigun. Ez da Silvio, Pablo ere ez, baina Euskal Herriko txoko pila batean jo ondoren kantari hau ikusi duenak gogoan izango du puska batean. Hain pertsona berezia zela ikusiaz, kontzertuaren ondoren hango eta hemengo kontuak eskatu genizkion.



Zenbat denbora daramazu hemen inguruan?

Oraintxe 6 hilabete t'erdi daramatzat, estatu espainiarrean. Txindurri-lanaren moduko zerbait egiten ari naiz, alde batetik bestera mugitu eta toki txikietan joaz. Ni bezala ibiltzeak abantaila izugarria du, milioika gauza ezagutzen baitira, eta ni behintzat horrela ibiltzeko adinean nago. Egunen batean igual aspertuko naiz, nekatu, baina orain indarra eta gogoia baditut eta oso gustora nabil. Milaka kilometro egiten nabil: iparraldera, hegora, irletara, ...

Euskadi beste herrialdeen ondoan ezberdina al da?

Bai, nola ez! Orokorrean estatu espainiarrean ezberdintasun izugarriak daude iparralde, hegoalde eta irlen artean: musika aldetik, musika-sustraiak ezberdinak dira, espresio-bideak ere bai, hizkuntza ezberdinak dituzte, eta abar.

Eta harrerari dagokionez?

Beno, nik uste dut artea hizkuntza oso unibertsala dela. Kuba, bestalde, kode unibertsal moduko bat da progresistentzat, ezkertiarrentzat, eta honek ate ugari irekitzen dizkizu eta gauzak erraztu ere bai.

"Beharbada Silvio eta Pablok beste izar batzuk eklipsatu dituzte"

Nola definituko zenuke Troba Kubatarra?

Troba Kubatarra kultura nazionalaren zati bat da, repentismoa eta "guajira" musika izan daitezkeen bezala, euskal kulturaren barruan bertsolariak dauden bezalaxe. Trobak historia bat badu, tradizio bat eta aldatuz joan da denborarekin beste gauza guztien antzera. Adierazpen artistiko bat da, kantu bidez egiten

dena; tipo batek kantuak konposatzen ditu, musika eta letrak, eta berak interpretatzen ditu kitarra baten laguntzaz. Horixe esan nahi du Trobak Kuban. Hiztegi batek berez erdi aroko bertso probentzal bat dela esango lizuke, errima oso berezia duena.

Trobadoreak oso eremu behartsu eta txikietan jotzen du, ohituraz. Baina noski, badaude Café Colón eta Café Real-en markoak gaintitu eta beste herri batzuetara joan diren trobadoreak, eta hauek izugarrizko bitarteko teknikoak erabiltzen dituzte batzuetan.

Hemen batez ere Silvio Rodríguez eta Pablo Milanés ezagutzen ditugu. Zer falta zaigu ezagutzeko?

Silvio eta Pablo bakarrik ezagutzen badituzu, ia dena falta zaizu. Troba Kubatarra XIX mendean hasi zen, Pepe Sánchez-ekin beharbada;



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433
Fax: 861067

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Bereztasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkan eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Telf. - Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

eta ez dituzu ezagutzen Trobako lau izen handiak: Sindo, Coronas, Villalón eta Rosendo Ruiz. Eta "Son de Matamoros"-eko troba guztia, Jose Antonio Méndez eta César Portillo de la Luz-en Feeling trobak, ... Teresita Fernández, Marta Valdés ere ez dituzu ezagutuko, Feeling eta Troba Berriaren arteko zubi direnak.

"Ideiak botere ekonomikoak baino indartsuagoak dira"

Troba, noski, ez da geldituko Silvio eta Pablarekin. Hauek hain lan borobil eta sendoa egin dute, hain berritzailea, aldi bat markatu dutela. Eta beharbada beste izar batzuk eklipsatu dituzte. Belaunaldi oso indartsua izan da, troba kubatarra aldarrikatu duena, hau da, kitarra eta ahotsa. Gero beste formato batzuetan ere kantatu dute, baina hori musika eboluzioaren kontu bat da.

Eta Silvio eta Pablaren artean zein aukeratuko zenuke?

Aizu konpadre, badakizu galdera hori ezin dizudala erantzun. Silvio eta Feliú-ren artean izan balitz ere ez nizuke erantzungo. Kontua ez da inor aukeratzea, batzuk besteei baino zorte hobea izan zuten eta ezagunagoak dira. Ni ere hor barruan sartuta nago eta TROBA aukeratzen dut.

Trobaren barruan non kokatzen duzu zure burua?

Trobadore bat naiz, lehenago beste musika formato batzuk probatu



Julio Ernesto Cintadok ere parte hartu zuen kontzertuan, bi olerki eder errejistratuz.

ditudan arren. Kantautorearen kontzeptu iberikoan ere sar naiteke. Eta ez dakit Trobaren ranking edo zerrendan non azal nintekeen.

Promozio musikaleko sistema inkoherente baten barruan dagoen naufragio moduko bat naiz, eraso askoren ondoren bizirik iraun duena. Jende askok etsi du, estiloz aldatu du jendeak, salsara, turistentzat musika egitera pasa dira. Hau militantzia arazo bat da; ideia batzuk argi izan behar dituzu, trobadore izateak zer garrantzi eta esanahi duen, adibidez.

Badakit nire musika eta mezua ez direla hutsean geratuko, ziur nago horretaz, eta honek asko estimulaten nau. Jendeak egiten ditudan aurkezpenekin horrela erreakzionatzen badu, nire buruari esaten diot egunen batean nire kanten edizio grabatu bat ateratzen badut jendeak ondo hartuko duela, erosiko duela.

Baina oraindik munduan zehar diskorik gabe nabilenez, zuzeneko emanaldietan jendea inpresionatzen, erakartzen saiatzen naiz nire mezuarekin. Trobadoreak komunikatzaile izan behar du.

"Troba Kubatarra kultura nazionalaren zati bat da"

Zein da zure kanteekin zabaldu nahi duzun mezua?

Mezua ... "Mezu" hitza konkretuegia iruditzen zait transmititu nahi dudanerako. Kubako munduan sarrerazten saiatzen naiz, gure herriaren arazoak erakutsiz. Itxaropen mezu bat ematen ere saiatzen naiz. Kubak oso egoera zaila bizi du, baina balore multzo bat lortu da urte hauetan eta hori ezin da ezerengatik aldatu.

Jendeak uste du Kuban bi talde



Taosa

Erribera kalea, 17

Tlf: 14 32 56

Salmentak:

- Untziak (Jeanneau, Rodman, etab.)
- Surf tabla eta Bodyboard (Taosia, H. Buttered)
- Anarizako artikuluak

KONPONKETAK, PLASTIFIKATUAK, POLIESTER, PINTAKETAK, ANTIFOULING IPINTZEA, OSHOSIS TRATAHENDUA.

AURREKONTU ETA IKERKETA TEKNIKOAK EDOZEIN HOTATAKO ERREFORMA ETA KONPONKETARAKO.



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi Auzategia, 10 belcia
Telefona: 862051

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

bakarrik daudela, onak, iraultzari eusten diotenak eta bestetik txarrak, sozialismoaren aurkakoak. Errealitatea ez da horrela, mila zehaztapen egin behar dira eta horregaitik nire kantetan herriko gertaera oso partikularrak azaltzen dira, oso ezaugarri berezikoak. Benetako kubatar baten irudia osa dezaketen gauzen laburpen moduko bat eskeintzen saiatzen naiz, hurbileko kubatar bat erakusteko.

Nola eragin du blokeoak, egoera ekonomikoak zure kantaeran?

Blokeoak ez dit ezertan eragin, "blokeatua" jaio nintzelako. Eremu sozialistaren erorketak izan du eragina; aldaketa ekonomikoek alderdi ideologikoan galera handia dakarte eta nik nire kantetan utopia jakin batzuk defendatzen saiatzen naiz, zenbait proiektuk utopia, erakarpen,

sakrifizio dosi batzuk behar dituztelako.

Nire ustez ideiak botere ekonomikoak baino indartsuagoak dira eta hori gero eta jende gehiagok frogatzen dit egunero, munduko edozein lekutan, zenbait ideien alde hiltzen direnean.

Ché eta Fidel

Honen adibide Ché izan daiteke. Zuk gainera kanta batean San Ernesto gurtzen duzula aipatzen duzu.

Horrela esanda "klitxé" bat dirudi, baina Ché bezalako pertsona baten historia sakonki ezagutzen duzunean, konturatzen zara tipo paregabe bat zela, izugarri erromantikoa, utopikoa, eta bere heriotza bere ideia guztien ondorioa izan zela.



Frank Delgadoren maketa batzuk salgai daude Inpernupen.

Gaur egun estandarte moduko bat da, iraultzaile baten paradigma. Ché fede iraultzailearen martirologia osatzen dutenetako bat izango da beharbada.

"Jendea Kubako munduan sarrerazten saiatzen naiz, hango arazoak erakutsiz"

Zer da Fidel gaur egun?

Konpadre, ez dakit zer esan. Gaitasun izugarria duen tipo bat da. Hainbeste arazo dituen iraultza baten buru izateak edonor ahultzen du eta zenbait akats egitera bultzatzen du. Ez dit beldurrik ematen Fidel miresten dudala aitortzeak. Kubako Iraultza Fidelen irudian pertsonalizatzen saiatu dira, eta lan izugarria egin duen arren Iraultza ez da Fidel soilik. Jainkoak libra gaitzala Fidelen alternatiba izan nahi duten horietaz.

Ze iritzi duzu Kuban dagoen turismo sexualaz?

Hori hemen asmatu den kontu bat da. Turismoa dagoen herri guztietan dago elkar-truke sexuala: Errepublika Dominikarrean, Thailandian, Isla Margaritan, edonon. Harreman afektiboek gizakiaren zati garrantzitsu bat osatzen dute eta batzuentzat aurreritiz betetako gizarte astun honetan harreman sexual egokiak mantentzea zaila gertatzen denez, hauen bila beste herri beroago, askeago, dibertigarriago batera joateko aukera izatea bidezkoa iruditzen zait. ■



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tf/Fax: 861416



**Nora
Uncilla**

Ez zait ez ondo ez gaizki iruditzen. Baina beti dago jendea kritikatzan duena, batzuk besteek baino gehiago.



**Jose Antonio
Menayo**

Ez dakit. Jendea ados badago ... bakoitzak jakingo du zer egiten duen.



**Telmo
Lisbona**

Nahikoa brontzeadore ematen badute, zoragarri!



**Rosi
Barrena**

Bueno, neri ondo iruditzen zait, jendeari hori gustatzen bazaio ... Bakoitzak nahi duena egitia, bestela ere igual-igual jartzen dira eta.

**Zer irudituko
litzaizuke
Itzurungo San
Telmo aldea
nudistentzat
jartzea?**



**Jose
Murciano**

Galdera earra! Ba, ondo iruditzen zait. Izugarrizko liua izango litzake herri txikia delako ... , baina Frantzia aldian jendia ibiltzen da bere erara, eta hemen zergaitik ez?



**Ainhoa
Aizpitarte**

Ondo, ez? Nahi duenak jun, libre dauke. Ohitute gaude holakuek ikusten, baina batzuk horrela egoteko, eta beste batzuk ikusteko prest.



**Jokin
Urkidi**

Ondo, ondo! Norberak ikusiko du zein jun edo zein ez jun horrea. Horixe, sin más!



**Leire
Argoitia**

Nahi dutena egitia! Bakoitzak nahi duen tokira jutia, San Telmo aldera edo ez. Ez nago baten alde eta ez bestearen alde. Jendiak ohitzen jun biharko zun. Gero eta gehiago jartzen dia ...

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda
Paki
OSASUN NATURALA
erribera 2
Tlf: 143156



ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

MOILAKO INGENIARITZA ESKOLA

Ia beti hor izango dituzu, eguraldi ona denean seguruago. Asko jubilazioa hartutakoak dira. Moilan eta Paolaldean gertatzen diren gauza denen berri izaten dute: obrak nola doazen, itsasora zein irteten den eta zein ez, arraunlariak zer moduz dabilten, ... DENA. Asteazken goiz batean moila aldera joan gera eta hango lanak nola doazen jakitearen aitzakiarekin gizon jator hauekin aritu gera berriketan. Irakasle zaharrak ikasleari bezela eman dizkigute azalpenak.

Dragaketa-lanak han egiten ari direla eta, Gernika parkera abiatu gera. Han topatu degu Angel, banku batean eserita. Ez degu zorterik izan, ordea; "forasteroa" omen da, bi hilabete omen dira Extremaduratik etorri dela. Ez da beste inor ageri eta Paolaldera joan gera, "adituen" bila.

Muturrean Antoniorekin egin degu topo, baina kale egin degu berriz ere, kainarik gabe kanpotik etorri den arrantzaile bat dela esan digu. Hamar t'erdiak dira. Sokorristen postuaren gaineko terrazara joan gera, baina han ere ez dago inor.

Aipagarria da nola bi barriketan perra piloa azaldu zen

Han goian gaudela Jontxu inguratu da hesietara eta barrura sartzea debekatzen duen txartel bat dagoen arren, aurrera egin du. Hori ikusirik Manolo ere barrura sartu da, baina handik zebilen enkargatuak mesedez kanpora irteteko eskatu dio, ez al duen kanpoko txartela ikusi.

"Txartela bai, baina zu ez" erantzun polita izan zitekeen, baina debekuak denentzako izan behar lukeela esan dio, ez batzuentzat bai eta besteentzat ez. Gogoz kontra, baina irten da.

Momentu egokia zela ikusita, behera jeitsi gera eta Manolorekin hasi gera hizketan, haserre dago. Hortik aurrera, dena erreza izan da. Ia egunero joaten dela kontatu digu, eta gustatzen zaiola lanak nola doazen ikustea. Orduantxe Jontxu bueltatu da eta moilatik datorren beste talde bat

ere iritsi da: Joxe Manuel, Erramun eta beste zenbait lagun. Adarra jo diote Manolori gertatu zaionagatik, eta enkargatuak alde egin duenez beste bi gizonezko barrura sartu dira.

Bitxikeria piloa

Harrituta geratu gera zenbat kontu dakizkiten konturatu geranean: Batek ikasten dituenak besteei kontatuaz badakite adibidez enkargatu famoso hori Beasain ingurukoa dela, eskubialdeko eskabadora duela bi egunetatik aberiatuta dagoela, momentu hauetan harginak jo ta su dabilzala lanean, eta abar luze bat. Taldeko batek gainera, Orruatik katalejuekin begira egoten dela aitortu digu, eta horregatik badaki 6 edo 7 direla lanean ari diren harginak.



Sokorristen postuaren gaineko terraza toki paregabea da lanak nola doazen ikusteko.

IZETA
orrastegia

Urumea 6
 Tlf: 862083



* SUKALDERAKO ALTZARIAK
 * ELEKTROGAILUAK
 * BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
 Telefonoa: 861694

Tarte batean berriz ere goiko terrazara joan gera argazki pare bat ateratzera eta orduantxe kamioi bat iritsi da. "Joiño" esan du han goian zegoen edadetuak; "atzo ez huan kamioirik etorri eta hau gaurko lehenengoa izango dek". Seguru ez daki harri honek zenbat pisatuko duen, baina badaki aurrekoak 56, 58, 61 tona inguruan ibili izan direla.

Taldearekin hizketan

Berriz ere beheko taldekoengana bueltatuz, kontu gehiago atera dizkiegu. Pare bat hilabetez lanak geldituta egon diren arren, martxa onean doazela entzun dute eta noizko bukatuko ote dituzten kalkuluak ateratzen hasi dira. Panelean 22 hilabeteko epea dagoela esaten du batek, "Baina ez dik jartzen obrak noiz hasi hituen" esan dio beste batek, urtarrilean hasi

beharrean martxoan jarri zirela martxan gogoratuz.

Enkargatuak mesedez kanpora irteteko eskatu dio, ez al duen kanpoko txartela ikusi

Lehengo kontuak ere azaldu dizkigute ondoren. Lehen Talai-Pe aurrean bukatzen omen zen barra. Luzatzen hasi zirenean eta hartzen ari zen enfilazioa ikusirik herriko arrantzaleak kexatu egin ziren eta gero zuzentzen saiatu omen ziren; "Hori pasaitarrei konpetentziarik ez edukitzea komeni zitzaielako egin ziaten horrela" iruditzen zaio taldeko bati.

Azkenaldian dragaketa lanean ari zirela zenbait gauza ateratzen omen ziren hondarrarekin batera. Hauen artean aipagarria da nola bi barriketan



Barberiko perra pare, txukun-txukun jarria.

perra piloa azaldu zen. Bi motako perrak azaldu omen ziren, haundiak batzuk (zaldienak) eta txikiagoak besteak (asto edo mandoenak).

Batek Orruatik katalejuekin begira egoten dela aitortu digu

Lehen holakoak Legazpin egiten omen ziren -beste batzuk diotenez Aizarnazabal aldean ere ba omen zen burdinola bat-, eta handik gurdietan ekarri ondoren Zumaian kargatu eta itsasoratuko ziren untziak. Hauetako itsasuntziren bat hondoratutakoan galdutakoak izan daitezke perra hauek. Barberian txukun-txukun jarritako perra pare badagoela esan digute, eta talde jator hau agurtu ondoren hara joan gera argazki kamara hartuta.

Hemen bukatu degu gaur goizeko lana. Portuko kontu gehiago behar dituenak, badaki nora jo. ■



Dakiten hori elkarri kontatuaz gauza asko ikasten dituztela argi dago.

Surf

Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUTZ

Erribera, 28
Tel. 86 23 69
20750 ZUMAIA

ARRAIN ETA MARISKOAK

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK




7 MARES IZOZTUAK

leize




TABERNA

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA

"KU-KU"



ZEIN JARRIKO DUT GAUR?






Besarka nazazu berriro !

Joan den hilean, Kathleen Keating-en liburua jarraituz, besarkaden garrantziaz hitz egin genizuen. Baina besarkatzeko era eta erak daude, eta konturatzen ez bagara ere, desberdin besarkatzen ditugu ezagutu berri ditugun lagunak, anai-arreba-guraso edota orain dela asko ikusi ez ditugun osaba-izebak, inguruko jendea Errelak gola sartzen duenean, Kim Bassinger edota Tom Cruise -ametsetan- besarkatzen ditugunean. Aipatu berri dugun liburu horretan besarkatzeko hainbat era aipatzen dira, eta hemen batzuk azalduko ditugu:


“A” erako besarkada: Oso klasikoa eta pixkat itxurak gordetzekoa. Guztiok erabil dezakegu, inolako arazo eta konpromezurik gabe.



Gerrian bueltako besarkada: Laguntasuna adierazteko besarkada oso egokia, bereziki etxeko lanak egiten ari direnak besarkatzeko: ontziak garbitzean. Baina hobe besarkadaz gain eskutrapoa hartu eta etxeko lanetan laguntzea.




Hartzaren besarkada: Agian ospetsuenetakoa. Indartsua. Seguratasunez bete. Ongi neurtu indarrak besarkatzean, itogarriegia gerta ez dadin.



Masaileko besarkada: ez da kolpe berezi bat. Xamurra, ezta eta gozoa. Aurretik, ordea, gizonezkoa bazara, “filomatik”...



Bapateko besarkada: Jostaria, xeratsua, laburra. Denboraz gaizki gabiltzenean jende asko besarkatzeko aukera ematen du. Ezusteko sentazio batekin izan daiteke.



Talde besarkada: Lagun edota kideen artean ohizkoa. Oso egokia da kirol talde edota abestaldeentzat.



Asmakizun besarkada: Lagun minen arteko besarkada jostaria. “Ea asmatzen duzun nor naizen”



Bihotz besarkada: Presak eta beste guztia alde batera utzi. Besarkada maila gorena da. Bihotz-bihotzez ematen dugu.



Hauetaz gain, edozein une eta leku onak dira besarkatzeko, eta abilitadea libre dago: urazpian, eskailera gainean, txarangarekin pasakallean, ... ■



ZUMAIA



AUTO-ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea


☎ 861018

20750 ZUMAIA



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia



Motxian hi!

Nor: Juan Mari Lopez
Nola: "Txurre"

-Ipar poloa izozki bat balitz, zein zapore emango zenioke?

Limoia

-Zer izoztuko zenuke desagertzeko?

Politikoen soldatak

-Telebistako zein iragarki dezu gustokoen?

Nike zapatilena, tenista bat agertzen dena.

-Izozkia erotikoa al da?

Bai, batez ere yogurrezkoa

-Izozki bat bazina, noren ahoan egon nahi zenuke?

Edozein rubiarenean

-Nolatan hasi zinen lanbide honetan?

Herentziatik dator. Nire aita duela berrogei urte hasi zen

-Eta zeu?

Duela hogeit urtetik

-Noiz egiten dituzu izozkiak?

Eguraldi ona egiten badu, goizez eta arratsalde, asko saltzen baita. Eta bestela egun erdiz bakarrik

-Zein da gehien saltzen den izozki mota?

Lehen bainilla, orain yogurrezkoa

-Goizean goiz zure etxeko leihotik barrura begiratuko bagenu?

Mugimendu asko, ditudan hiru semeak direla eta

-Globo batetik goitik behera begiratzuz zer nabarmenduko litzateke Zumaiatik?

Ibaia

-Zer gorrotatzen dezu

Gezurra

-San Telmoak ala San Pedroak?

Pertsona bezala, nik ez ditut disfrutatzen, baina nahiago San Telmoak. Negozioaren aldetik ordea, San Pedroak hobe.

Kontu-kontari

Getariarra Zumaian

Getariar bat San Pedroetan Zumaian zebilen eta ez noski baraurik. Zueltzuneko aldapan emakume bati galdetu zion:

- Herri honetan ez al da aldapa besterik?
- Zeu nungua zera, ba?
- Getaiarra.
- Han ere bada, ba, aldapa ugari.
- Bai, baina dana aldapa behera.

Aldapan gora frenatzen

Ba omen zen inguruan bizikleta karrera bat, Euskal Herriko Itzulia edo, eta Jose Mari Kerejeta atzetik abiatu zen bizikletan, esanez:

- Hauek nola dabiltzan ikusi behar diat.
- Bueltan norbaitek galdetu zion:
- Zer moduz, Jose Mari?
- Hauek ezer ez -erantzun zuen Kerejetak-

Pitilinak hainbat indar ez zeukatek. Itziarko aldapan gora frenatzen joan behar izan diat, atzetik joatearren.



BASADI
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

ALBAITARITZA KLINIKA

LARRIALDIAK
• 24 orduetan
• Zeure etxean
• Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK

- * Enkuadernaketak
- * Plastifikatzeak
- * Fax publikoa
- * Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120
ZUMAIA Fax: 143120

Gurutze Gorrira ere ez doaz

Batzuk otsailean, besteak ekainean bertan, 7 gaztek aurkeztu behar ziren Zumaiaiko Gurutze Gorrian Ordezko Zerbitzu Soziala egitera, baina ez joatea erabaki dute, soldadutzaren aurkako pauso bat emanaz. Erabaki hau herriari aditzera emateko modu bitxi bat aukeratu zuten, gainera. Lehengo San Juan egunean Gurutze Gorriko gaineko terrazan arratsalde-pasa bat antolatu zuten.



Gurutze Gorriko terraza aukeratu zuten beren protesta aditzera emateko.

Ez bat, ez bi, dozena-erditik gora lagun zirela aprobetxatuz, denen artean zerbait antolatzea pentsatu zuten eta aurrera begira ere horrela jokatu nahi dute, denak batera beste ekintza batzuk antolatuz.

Eguerdian sartu eta arratsaldeko zazpi terdiak bitartean egon ziren 15-20 lagun inguru, eta arratsaldean zehar

jende dexteraren bixita jaso zuten. Bero izugarria izan zen egun hartan eta jatekoarekin batera ez ziren izozkiak eta edariak falta izan. IntsuMUSio txapelketa bat ere jokatu zen, eta umorea eta txantxak nagusi izan ziren.

Amaieran manifestazio bat bururu zuten, ehun lagun ingururen babesarekin. Gurutze Gorritik hasi eta bertan amaitu zen, eta herriko kaleetan zehar intsumisioaren aldeko eta Gurutze Gorriaren aurkako oihuak barreiatu zituzten.

Tertulia koxkor bat

Honen aurretik, tartetxo bat aprobetxatuz, tertulia moduko bat izan genuen Aitor, Iñigo, Gontxa, beste Aitor eta Andonirekin. Hasieran kosta zitzaien hitz egitea; gero ia ezin izan genituen isilarazi.

Otsailean eta ekainean aurkeztu behar zuten berez Ordezko Zerbitzu Soziala betetzera, baina zerbitzu honekin ados ez daudenez ez joatea erabaki eta ekintza honen bidez jakinerazi nahi izan diete herritarrei erabaki dutena. Ez aurkeztearekin



Atzetik datozenei ere pauso hau emateko gonbitea luzatzen diete.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057

batera, gainera, intsumiso bihurtu dira; badakite ordezeko zerbitzuarekiko intsumisoei bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorrak ezartzen ari direla.

"Beraiek esaten dute zer den zerbitzu soziala eta zer ez"

Ekintza honekin, bide bat zabaldu nahi dute atzetik datozenentzat. Gaztetxoei deialdi berezia egin nahi diete, laister arazo hau gainera etorriko baitzaie. Orain gartzela-zigorrak dauden bezelaxe laster bestelako zigorrak ezarri nahi dituzte: administrazioan ezin lanik egin, ezin bekarik jaso, isunak, e.a.

Herri mailan egin beharreko lan bat dela iruditzen zaio Aitor Bayori: "Udaletxeak soldadutzaren

aurkako mozio bat onartatu arren, tailak egiten eta ejerzitoarekin kolaboratzen jarraitzen du". Inñigok gehiago zehazten du: "Espiritu gurekin daudela esaten dute, baina legearen aurrean ez dute ezer egiten".

Komenigarria iruditzen zaio Andoniri argitzea ez doazela Zumaiako Gurutze Gorriaren aurka. "Erakundearen aurkako ekintza bat da, ez goaz salaketa pertsonalizatza". Gainera Gurutze Gorriak ejerzitoari laguntzeaz gain zerbitzu berriak (ingurugiroa, ...) antolatzen dituela zehaztu digu Gontxalok, objektoreen lana aprobetxatzeko.

Ez dute zalantzan jartzen erakunde honek egiten duen zerbitzua, baina bai nola egiten duen. "Ni ezin naute behartu egin nahi ez ditudan lanak egitera". Gainera beraiek

esaten dute zerbitzu soziala zer den eta zer ez. "Zuk ezin dezu esan -Nik sartuko ditut hainbeste ordu adibidez herri aldzikari bat egiten, eta zerbitzu sozial bat da. Edo beste edozein kolektibotan lan egitea" aipatu digu Aitor Bayok.

Ez joateko erabakiak elkartzen ditu gazte hauek, baina bakoitzak mila arrazoi ditu intsumiso izateko. Inñigoren ustez "Ejerzitoa estatuaren garrantzia da, eta nik ez diot ezer zor estatu honi eta ahal deten neurrian ez diot laguntzarik emango". Kontzientzi-objektorea izateko ere arrazoiak beraiek mugatzen dituzte, legea hasiera-hasieratik beraien esku dago: "Zuk ezin dezu Motivos políticos jarri, Eticos y Filosoficos jarri behar dezu. Eta nik baditut ez joateko arrazoi politikoak".

Udaletxeak eta Gurutze Gorriak ejerzitoarekin kolaboratzen dute

Gai honen inguruan mugimendurik nabarmenena Ismaelen epaiketarekin izan dela iruditzen zaio Aitor Kortari; jendea asko mugitu zen. Gu Ez Goaz hor dago, baina kale mailan ez omen da holako giroa ikusten. Andoniri iruditzen zaionez "Guztion arazoa da, ez da bakar baten kontua, eta horregatik erantzun kolektiboa ematea garrantzitsua da". Jendeari hurrengo ekintzetan gehiago parte hartzea eskatzen diote, beraz. ■



Intsumisioaren aldeko oihuak nagusitu ziren manifestazioan.



**JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20, Zumaiak

KALARI TABERNA JATETXEA

- * Eguneako menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIK

LUIS MARI GOIKOETXEA:

"Kirola ez zaiola batere axola erakusten ari zaigu Udala"

Kezkatuta topatu degu arraun munduan hain ezaguna den gizon hau. Ez da gutxiagorako; hirugarren urtez babeslerik gabe egin beharko dio aurre traineru denboraldiari. Honi eta beste hainbat konturi buruz hitz egin degu Goikorekin.

Zenbat urte daramatzazu Aita Mari Arraun Elkarteko presidentea bezela? Ez al zera aspertu?

12 urte pasatxo daramatzat eta aspertu baino gehiago nazkatu egiten zera batzutan. Arrauna asko gustatzen zaigu, ordea, eta inguruan ditugun laguntzaileekin gauzak errezago eramaten dira eta beno, nola edo hala aurrera goaz.

Urte guzti hauetan momentu pozgarriak txarrak baino gehiago izan al dira?

Momentu txarrak gehiago izan dira onak baino -oso konbentzitutak-.

"Maila txukun batera heltzeko asmoa degu"

Kontxako banderak eskuratutako urteak izan al dira Zumaiak izan dituen garai hoberenak?

Kirol mailan ez dago dudarik urte onenak izan dituela, baina dena ez da Kontxako estropadetara mugatu behar. Hortik kanpora bandera asko irabazi ditugu, eta honek ere ilusio handia egiten du.

Asko igaro beharko al da sasoi horiek bueltatu ahal izateko?

Gaur egun Kontxako bandera irabaztea oso zaila dago. Talde asko daude onak gainera hor punta-puntan dabilzanak; preparazio ikaragarria dute beste urte batzuekin konparatuta. Kontua da jarraipen bat egotea "koadrila" berberarekin, orduan zerbait egiteko aukera izango degu.


Orain ditugun arraunlariak zumaiarrak dira, gazteak dira baina poliki-poliki esperientzia hartzen doaz.

Hauekin eta sartuko den jende berriarekin maila txukun batera heltzeko asmoa degu.

Diruz larri

Emaitzek laguntzen dutenean arazo gutxi egoten dira. Orain berriz, egoera ekonomiko oso kezkarria zaude, ezta?

Oso egoera txarrean gaude, bai. 2 miliotako zorra degu eta hauei ahal degun bezela aurre egin behar diegu. Udalak zor horiek ordaintzeko ez digu laguntzarik eskeini eta jarrera hori ikusirik oso haserre gaude. Horrela erakutsi dute kirola ez zaiela batere axola, oso gutxi egiten dute. Urteroko diru-laguntzatxoa ematen digute, baina




Dituzten laguntzaileekin gauzak errezago eramaten omen dira.

goofy
HAUR JANTZIAK
Amalako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julio curiel
PELUQUERO
Erribera kalea
ZUMAIA



Denboraldi honetan maila txukuna erakutsi dute oraingoiz Telmo Deuneko mutilek.

hortik aparte gauza gutxi. Laguntza irabazten eta galtzen denean eman behar da, ez bakarrik emaitza onak lortzen direnean.

Zumaia bezelako klub historiko batek patrozinadorerik ez izatea ez al da arraroa?

Gaur egungo egoera ikusirik ulergarria da. Ez da diru gehiegi eskatzen, baina inor ez da ausartzen babes hori ematera. Gainera ez da gure arazoa bakarrik; besteek ere arazo handiak izan dituzte patrozinadore bat topatzeko edo aurrekoarekin jarraitzeko.

"Momentu txarrak gehiago izan dira onak baino"

Diru arazo ugari dituzuen arren, gero eta arraunlari gehiago daude, eta banko mobilean ere arrakastaz sartu zerate. Ez al da hau pixkat arraroa?

Bai, horrela da, baina badirudi hau Udalak ez duela ikusten edo ez duela

ikusi nahi. Banko mobilean oso ondo ibili gera. Neskak ere hasi dira denboraldi honetan arraunean, eta garaipen asko eskuratu dituzte; mutilak ere ez dira atzean geratu. Gero eta "frente" gehiagotan ari gera sartzen, eta horretaz Udala konturatu beharko litzateke laguntza gehiago emanaz.

Hasi berria den denboraldirako ze helburu dituzue?

Esperantza pixkat badegu aurtan ondo xamar aritzeko, jendea gogoz ari da lanean, baina beno, ikusi egin behar.

Diru kontuari dagokionez, berriz, herriko tailerrek ematen diguten laguntza txikiekin aurreko zulo txiki batzuk tapatzeko esperantza degu. Bestela ezingo degu inola ere aurrera irten, ez daukagu dirurik.

Bukatzeke, nolako etorkizuna somatzen diozu Aita-Mari Arraun Elkarteari?

Gazteak arraunean egin nahi duen bitartean gu hemen egongo gera laguntzeko, diru arazo guzti horiek konpontzen baditugu behintzat. ■

LABURRAK

ESTROPADAK

Hil honen 2an estropadak izan genituen eta bateletan Zumaiaiko nesken bi batelak izan genituen nagusi eta Banko mobilean ere zumaiaarrak sanjuandarren aurretik sartu ziren.

Ondoren autoaren zozketa izan zen eta **11.462 zenbakia** izan zen saritua.



Azkenik Zumaiaiko Ikurrina abuztuaren 10ean jokatu delako gogorarazi nahi dizuegu, erlojupeko saioan beti bezela.

ZESTAKO VII SAN PEDRO SARIA

Lehengo larunbat iluntzean, uztailaren 1ean jokatu ziren zazpigarren urtea bete duen zesta punta txapelketa honetako finalak.

Alebinen mailan Berriatua eta Cabanillas aritu ziren norgehiagokan eta azken hauek nagusitu ziren.

Infantiletan Berriatua eta Zumaia aritu ziren, eta Ruben eta Osa III -k herritarrek osatutako bikoteak lortu zuen garaipena.

Azkenik, kadeteen mailan Gasteiz eta Markinako bikoteek jokatu zuten, eta bizkaitarrak izan ziren nagusi.

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

expert
ELEKTROGAILUAK



Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

Etkezaretara, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

LAZKANO ETA MENDIZABAL TXAPELDUN

Menayo eta Gorostola, laugarren

Kanpoko bikoteak nagusi izan dira aspaldian antolatzen ez zen Pala txapelketa honetan, eta horren adibide degu herriko lehen bikotea laugarren sailkatu izana.

Ekainaren 25ean izan ziren finalak, eta sari banaketan garaian txapelketako jokalaririk onenaren saria Lazkano aizarnazabaldarrari eman zitzaion.



Lazkano eta Mendizabal Aizarnazabalgo bikotea errez nagusitu zen Koldo eta Manuel azpeitiarren aurrean, horrela txapela lortuz.

Menayo eta Gorostola herritarrek ezin izan zuten garaipena lortu Mendaroko Uranga eta Andonegiren aurkako partiduan.



LABURRAK

FUTBITO TXAPELKETA

Aurrera doa Polikiroldegian egiten ari den txapelketa hau. Jadanik 2. fasean daude eta Liga eta Kopa jokatu behar dutenen arteko bereizketa egin da. Sorpresarik haundiena ZALLA ERRETEGIA Ligarako ez sailkatzea izan da, bi urtez bertako txapeldunak izan ondoren. Bestalde aipagarria da kanpoko talde ugari daudela, Zarautz, Azpeitia eta ingurutik etorriak.



PIRAGUA IGOERA ETA JEITSIERA 9AN

Uztailaren 9an, igandean, jokatu da Urola ibaian Itxas-Gain elkarteak antolatzen duen karrera hau. Goizeko 11etan hasiko da saioa eta bertan Euskal Herriko eta kanpoko hainbat talde izango dira lehia bizian. Azken txapelketa eta karreretan erakutsi duten maila ederra ikusita, bertako palistek lan ona egitea espero degu.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA

Mattin-ek irabazi du I Baleike Komiki Lehiaketa

Daniel Carballo eskuratu du bigarren saria

Iñaki Martiarena "**Mattin**"-ek irabazi du aurten lehen aldiz antolatu degun komiki lehiaketako lehen saria, erdiko orrialdeetan dezuen "**KU-KU**" lanarekin. 25.000 pztako saria gustora hartu zuen Euskaldunon Egunkarian lan egiten duen komikigile ezagun eta jator honek.

Daniel Carballo izan bigarren postuan geratu dena, laister argitara emango degun "**SINBIOSISA**" lanarekin. Dani aldizkari honen kolaboratzaileetako bat degu eta ondo merezitako 15.000 pezta jaso ditu.

Aurrekoa ere zumaiaarra den arren, beste bati dagokio zumaiaar

onenaren saria, **Jon Ander Garciari** hain zuzen ere, "**2.005.**" izenburua duen komikiarengatik. Honek ere beste 15.000 pezta jaso ditu eta aurrerantzean, lehiaketaz kanpo bada ere, bere lanak jasotzen jarraitu nahi genuke.


Egia esan ez dira lan gehiegi aurkeztu lehiaketa honetara. Bi komiki aurkeztu dituzte kanpotik eta hiru berriz Zumaia bertatik. Hurrengo urteetan propaganda hobea eginez lan gehiago biltzea espero degu, hala ere.

Uztailak 2ean izan zen sari banaketa, eta honen ondoren San Pedroen amaiera zela-ta, bueltatxo bat emanez ospatu zuten irabazleek.■



Hiru gazte hauek irudimenaren aldetik iturri ona dutela frogatu digute.

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Egunko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853

BENITO CANTERORENA

ARGAZKI ONENA

Benito Canteroren "**Altos Hornos**" argazkia izan da Zumaia VII. Argazki Lehiaketako 1.saria jaso duena (45.000 pzt.). Kote Cabezudok eskuratu du bigarren saria (35.000) eta Angel Pérez-ek hirugarrena (25.000).

Zumaia onenaren saria (15.000 pezta), berriz, Jose Luis Alvaro argazkilari ezagunak lortu du. Argazki onenekin erakusketa bat antolatu da Foronda Kultur Etxean.



JAVIER CARBALLO ARGAZKI

RALLYKO ONENA

Inda-Mendi elkarteak antolatzen duen Zumaia VIII. Argazki Rallyko lehen saria Javier Carballo irabazi du, lehenago irabazitako sari guztiei beste hau gehituz. Bigarren sailkatua Fermin Etxeberria izan da eta hirugarren postuan geratu da Jaime Ballesta.

Zumaiaarren artean Juan Ramon Llavori izan da onena; Inda-Mendiko onena Jose Mari Llavori izan da eta Zumaia 20 urtetik beherako gaztearentzako saria Iñigo Llavorik eskuratu du.

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Uztailak 13
osteguna

**MUSIKA
KLASIKOA**

Aita Mari zineman. **PABLO SOROZABAL** haizezko bostekoaren **KONTZERTUA**, gaueko 10etan.



TXOTXONGILO **Uztailak 20**
SAIOA osteguna

Arratsaldeko 7etan
Eusebio gurrutxaga plazan,
MARMAR taldea.

Uztailak 22
Larunbata

**JAZZ
TALDEA**

Gaueko 11etan eta
Eusebio Gurrutxaga plazan,
ZUBIPEKO SWING jazz
taldearen kontzertua

Uztailak 29
Larunbata

**BANDAREN
KONTZERTUA**

Zumaiako **Musika Bandaren**
kontzertua Eusebio Gurrutxaga
plazan.

TXARTEL LEHIAKETA

Udako festak iragar-
tzeko balioko duen txartel
hau aukeratzeko lehiaketa
martxan dago. Zumaiar orok
har dezake parte, gehienez
ere 3 lan aurkeztuz. **UDAKO
FESTAK 95** testua eraman
beharko du; **DIN A-3** da
neurria eta teknika librea.
Irabazlearentzako saria
60.000 peztakoa izango da
eta epea uztailaren 11ean
itxiko da.



AIZPURUA

L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAILA



Mendaro Martiñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

ERTZ INFORMATIKA

-ORDENAGAILU P.C
-INPRIMAGAILU
-CD-ROM
-KRISTALEZKO PANTAILAK
-DISKETTEK

ERAKUSKETAK

**ARGAZKI LEHIAKETAKO
ERAKUSKETA**

Lehiaketa honetara aurkeztu
ziren 42 argazki onenak ikusgai daude
Forondan, **uztailak 9a** bitartean.
Ikustordua, astelehenetik ostiralera
6'30etatik 8'30etara.



**PINTURA ETA ZERAMIKA
ERAKUSKETA**

ESPERANZA AGIRREren
lanak izango ditugu ikusgai
Forondan, **uztailaren 14tik 27ra**

**SAN KRISTOBALAK NARRONDON
ETA KARMENAK ARROA BEHEAN**

Uztailaren 7tik 10era bitartean
Narrondon jaiakm zango dira eta besteak beste
7an *Laja*, *Landakanda* eta *Ponpax*-ekin izango
da dantzaldia, 8an *Lotxorekin*, 9an *Zabaleta*
eta *Imanolekin* eta 10ean *Jokin* eta
Azkonobietarekin.

Arroa Behean 14tik 16a bitartean
ospatuko dira Karmenak. Bietara joateko
gonbidatuak zaudete.



INPERNUPEREN KULTUR ASTEA

Inpernupere Kultur Elkartearen IX. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi biltzen dituen KULTUR ASTE bat antolatu dute, uztailaren 17an hasi eta 23a bitartean.

Egunak erabat zehaztuta ez daudenez, kultur aste hau osatzen duten ekitaldien berri emango dizuegu eta egitarauari buruz argibide gehiago behar badezu, esku-programaren eta txartelen bidez garaiz emango zaizue honen berri.


Iaz bezela, aurreko ere **Pepe Rei** gure artean izango da. Oraingoan "Carabanchel" izeneko **HITZALDIA** emango du eta argitaratu berria duen liburuan oinarrituko da batez ere.

Beste ekitaldi interesgarri bat Zumaiako antzerkilariek egingo duten **MAHAI-INGURUA** izan daiteke. Herriko antzerkilaritza aztertuko da eta

jende askok hartuko du parte: Inaxio Tolosa, Abelin Linazisoro, Elena Irureta, e.a.

Aipagarria da era berean gero eta indar gehiago hartzen ari den **ESKOKA TXAPELKETA** ere ez dela faltako aurtengoan.

Kultur aste hau Inpernupere elkartearen egingo den bazkideen arteko **AFARIA**rekin amaituko da.




PINTURA TAILERRA

Zuloaga Museoa Udalaren babesean Pintura Tailer bat antolatu du uztailaren amaierarako. Tailerreko irakaslea **JULIAN UGARTE** izango da, eta uztailaren 17tik 30era bitartean burutuko da. Izena eman nahi duten guztiek Zuloaga Museo bertara jo beharko dute (861015). Izenematea: 18.000 peza.

UDA MUSIKALA

Abuztuaren 1ean hasi eta 11ra bitartean Nazioarteko Jaialdiaren XI. edizioa izango da. Ikastaro, kontzertu eta ekitaldi ugari izango dira aurreko eta egitarauari dagokionez, esku-programak aurrez banatuko dira.



IRAKURKETAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian (goizez bakarrik) aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.

Euskaraz

Lehenago zen berandu
Enbor zarraren ezpalak
Lancra
Goenkale
Atoiuntzia
Lur bat zure minari
Satorrak
Ukoreka

Arantxa Iturbe
Manuel Lasarte
Luis Haranburu-Altuna
Arralde taldea
Edorta Jimenez
Jose Luis Otamendi
Andoni Tolosa
Patxi Zabaleta

Gaztelera

Pasionaria y los siete enanitos
Borja Borgia
Caidos del cielo
La escritura o la vida
Mr Vertigo
El ultimo templario
Los archivos de Salem
La invención de Europa

M. Vázquez Montalbán
Manuel Vicent
Ray Loriga
Jorge Semprún
Paul Auster
Edward Burman
Robin Cook
Emmanuel Todd



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143



ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

Oraingo honetan herrian degun rock talde gazteenarekin solasaldi bat edukitzeko aukera pozgarria izan degu. Herrian aski ezaguna den talde honetako partaideak 16-17 urte bitartean dabilta. Berezitasun hau aipatzea ezinbestekoa egin zaigu, baina duten indar eta freskotasun hori ukatzea ere, ezinezkoa da.

Gaztetasunean dago etorkizuna

Ezinegonak, konposatzeko gaitasunak eta gehienbat taldekideen arteko ilusio eta gogoetak beren lan-tresna garrantzitsuenak bihurtzen dira. Kitarra zaratatsuak, erritmo eramankorrak, koordinazioak, eboluzio azkarrak eta zuzeneko indarrak aldiz, beraien barnetik ateratzen diren nahigabeko espresio arruntak besterik ez dira.

Jon Garcia (kitarra eta ahotsa), Haize Galarraga (kitarra), Eneko Dorronsoro (baxua eta ahotsa), Ibon Esteibar (ahotsa) eta Uhin Loiola (bateria) hasiera batean **ATXANTATU** izenarekin azaldu zitzaizkigun. Pixka bat beranduago aldaketa etorri zen eta **ZURE HILTZAILE** izen berriarekin ezagutuak izan ziren. Gaur egun izen berri baten bila dabilta jo ta ke. Laster aurkituko dutelakoan gaude, zeren etorkizuna besterik ez duen talde honek horrelako oztupoak (besteak beste) berehala gainditzeko gaitasuna baitu. Hona ba bost taldekideekin beren lokalean izan genuen hizketalditxo.

Noiz eta nola hasi zineten?

Duela urte t'erdi inguru. Hasieran Musika Eskolan hasi ginen ni (Jon) eta Haize talde bat eratzeko asmotan eta gero Iboni komentatu genion kantatzeko eta baita Uhini ere bateria jotzeko. Dorron ez dakigu nondik azaldu den. Ah bai!

Engantxatuta sartu zen. San Pedro ikastetxean zegoen baxista bakarra zenez gurekin sartu genuen.

Hasieran Musika Eskolako kontzertua egiteko elkartu ginen, gero talde bezela jarraitzeko gogo sortu zitzaigun.

Non entsaiatzen zenuten?

Musika Eskolan hasi ginen; gero Jonen etxean, baina han kexatu egin ziren aldameneko etxeokak eta orain hemen gaude Ibonen aiten garaje batean ez dakigu noiz arte.

Herrian gero eta musika giro gehiago dago

Nola moldatzen dituzue kantak?

Cosas del Mister -diote denek Jon Garciari begiraturaz-.



Hori dek txixalarri aurpegia Ibon! Enuretikoia ematen dek!



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

Aurrena etxean ateratzen dut kitarrarena eta gero lokalera etortzen gera, letrak atera, pusketak nola moztu eta hori ... arreglitoak denon artean egiten ditugu.

Lehen kontzertua?

Oxford-en, baina hura ez zen izan kontzertu kontzertua. Oriokoa izan zen lehen kontzertua, *The Pack*-ekin. Han nahiko ondo atera zitzaigun eta oso gustora geratu ginen. Kriston katxondeoa egon zen.

Kontzertu gehiago egin al dituzue?

Bai, bi. Bata Zarautzen eta bestea duela gutxi Zumaian intsumisioaren aldekoa.

Gustoko musika

Ze musika entzuten dezue?

Danok musika desberdina entzuten degu, danetik: *Negu Gorriak*, *S.A.*, *Jotakie*, *La Polla Records*, *M-ak*, *BAP*, ...

Eta kanpoko musika?

Baita: *Off Spring*, *Jimmy Hendrix*, *Red Hot*, *Rage Against The Machine*, ... *Europe* (ja, ja, ja).

Frisbystuff eta The Pack-ekin zerbait grabatzeko asmoa degu

Zein talderekin joko zenukete gustora?

Igual zaigu, hor daude *Su Ta Gar*, *S.A.*, *N.G.*, *Orgasmic Toophpiks*, *DUT*, edozein.

Materiala nola lortu dezue?



Izen berria aurkitzeko proposamenak ere gustora hartuko omen lituzkete.

Bakoitzak berea. Gehiena ahorratzen eta erregetako opariren bat edo beste ere bai.

Udaletxearekin harremanik eduki al dezue?

Batez, ahalegindu ere ez. Uste degu alperrikakoa dela udalari zerbait eskatzea.

Eta eskatzekotan zer eskatuko zenukete?

Lokal bat eta dirulaguntza bat ez zen gaizki egongo. Alkateak lokalak eman behar dituela entzun degu. Ea egia den!

Herriko giroa

Herriko musika giroa nola ikusten dezue? Ba al dago zerbait?

Bai, beno, lehen baino gehiago bai. Hasieran ez zegoen ezerrez, AGE bakarrikan zegoen. Orain badago zerbait, gero eta gehiago.

Musika Eskola zer iruditzen zaizue?

Ondo, ambiente ona sortu da, jende asko elkartzen da hor. Hala ere badaude beste gauza batzuk ez zaizkigunak gustatzen. Adibidez hor dauden lokalak guztiontzat izan behar lirateke eta ez batzuentzat bakarrik.

Musikaz bizitzea posible al da?

Gu ez behintzat, beste batzuk agian - diote guztiak batera -. Nibela eduki behar da, baina gehienbat jendearen gustokoa izan behar dezu. Nahiz eta musika ona egin pixkat arraroa baldin bada ez dezu inoiz salduko.

Grabatzeko asmorik badezue?

Frisbystuff eta *The Pack*-ekin batera diru bat badegu aurreratua eta danon artean zerbait grabatzeko asmoa degu, baina hori beste kontu bat da. ■

**TXOKO
TABERNA**

Artadi auzoa
ZUMAIA


*Jesuskoa
Faletxea*



Txoca 86 17 39 • Cikia Zumaia



Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Eltze-itsu. 2.- Pluralean, gazuak egiteko ahalmena. 3.- Sortu zintuena. Naizen hau. Hari, du. 4.- Musulmanen egutegiko 9. hila. Tona. 5.- Alkoholen bukaeran. Ekarri aditzaren erroa. Bi adierazteko aurizkia. 6.- Entzumen organoa. 7.- Ukatea. Errepikatuz, gorotza. 8.- Bostehun. Garra. Bokala. Litoaren sinbolo kimikoa. 9.- Oztopoak. 10.- Lehenengoa. ... egin, goitik ari. Elkar jotzea.

GOITIK BEHERA: 1.- Zubia. 2.- Zoritzarrez. Sufrearen sinbolo kimikoa. 3.- Thailandia. Belar idorra. 4.- Utikan! Erailak. 5.- Pluralean, izaki bizia. 6.- Kontinente batekoa. Alderantziz, ... egin, istua bota. 7.- Opus hitzaren erdian. Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. Bat. Modua. 8.- Lekadunak. Alderantziz, lutezioaren sinbolo kimikoa. 9.- Portu. Bat. Gabarrak. 10.- Buru atala. Ikas eta Ari.

Hizki salda

ONDOKO KOADROAN
12 zuhaitzen izenak
aurkitu behar dituzu.



A	K	A	N	P	A	L	A	G	U	R	I
N	I	G	H	A	R	I	T	Z	U	L	M
M	L	E	P	G	O	R	O	S	T	I	A
O	O	R	I	O	L	A	X	S	A	G	K
P	L	E	N	R	I	U	S	M	E	A	A
A	O	S	I	O	M	P	Ñ	T	P	S	Ñ
Ñ	Ñ	O	S	A	J	A	T	S	A	T	P
I	A	O	A	L	A	G	A	I	I	A	N
D	M	N	D	D	L	I	A	E	E	I	I
O	A	D	F	O	T	K	O	F	Z	N	S
A	N	O	I	R	I	Ñ	A	U	I	O	A
U	A	E	I	O	A	R	T	E	A	N	M
I	N	T	X	A	U	R	R	O	N	D	O
A	G	B	H	D	J	A	U	I	L	O	O

Negar egiteko txistea

Gizona dendan sartu
eta haxe esan dio
dendariari:

- Umetxoaren
kotxearen azken epea
ordaintzera etorri naiz.

- Eta zer moduz
umea? -galdetu dio
dendariak.

- Oso ondo! Bihar
ezkonduko da!

UMOREA

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



Kokoe-k, Elgoibarren aldizkarian

AGURRAK

Aupa Ixiar! Eutsi gogor.
Lasai hartu, laster izango dezu
gure berri eta.

Jau ar yu? Ui ar beri uel. Guk
ere Irlanda aldera joan beharko
degu. Muxu eta besarkada bana.

Mofli! non zioz kamara?
Zezenak kendu al zian? Edo uretan
galdu al huan?

OHARRAK

Aita Mari elkartearen
autoaren zozketako zenbakia:
11.462

HBren mendi ekipoaren
zozketako zenbaki saritua: **2.116**
Irabazlea: Roman Sagarzazu.



**Txorta! Martxa horretan
behekoak etorriko zaizkik kamilla
eta guzti!**

KLASEAK

Matematikako klaseak
emango nituzke, OHO, BBB edo
IEE mailetan. Josu. Tfnoa: 143044

Salmenta puntuak

Jesuskoa
Errota (Erribera)
Errota (Basadi)
Ogi Berri (Amaiako plaza)
Ogi Berri (Basadi)
Arkupe okindegia
Aizpurua liburudenda
Olano liburudenda
Loitz liburudenda
Alai janaridenda
Nikol kafetegia
Inpernupe taberna
Zalla erretegia
Foto Gar
Arroa Beheko estankoa

MERKATU TXIKIAREN
*atalean era guztietako
gauzak sartu nahi genituzke,
ez da derrigorrez dena
txantxetako kontua izan
behar. Norbait agurtu nahi
badezu, zerbait saldu edo
erosi nahi badezu, klaseak
ematen badituzu, deialdiren
bat egin nahian bazabiltza,
oharren bat baldin
badaukazu, badakizu non
gauden eta idatzi lasai!*

TIPP

ALEMANIERA IKASI ETA HOBETZEKO
AUKERA BIKAINA
ALEMANIERA MERKATAL ETA JURIDIKOA
MINTZA IKASTAROAK
ORAIN BAITA ZUMAIA ERE
DEITU 835609 TELEFONORA



**Eros ezak/n Gazte Batzordearen azken
kamiseta, bukatu baino lehen!**

**1.000
PEZTA**



**ZUMEA, ZALLA,
NIKOL edo LEIZEN
eros ditzakek/n**

**4 Taila dauzkak/n
aukeran:
M, L, XL eta XL**

Lehiaketa goxoa



Uda iritsi da. Beroa. Ze gustora hartzen degun kukurutxo bana. Zein dira argazkian ageri diren mutiko hauek? Gutxienez baten izena asmatzen dezuenen artean

Txapartegi gozotegiak

eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **uztailak 21a** baino lehen, eta zorte on!

Lehengo hilabeteko kamioia Erribera kalera sartzera zihoan orain biderik ez dagoen toki batetik. **Esther Osak** ederki asmatu zuen eta berari egokitu zaio San Markos tarta goxoa. On egin!



O PORRETARA AL ZOAZ?



Nora zoazen berdin da: Irlandara, Guatemalara, Txinara, Nepalera, Pirineora, Mediterraneora, Oikira edo Askizura.

Zoazen toki horretatik

POSTALTXXO BAT bidaltzea bihotzez eskertuko genizuke, horrela gure lan-orduak arinago gerta daitezkeelako.

Gainera polita bada argitara emango degu, beharbada. Badakizu non bizi geran:

**BALEIKE
FORONDA KULTUR ETXEA
20750 ZUMAIA
EUSKAL HERRIA**